



**2018KO OTSAILAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko otsailaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA HEMERETZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HIRU (39.583,00 €)takoa onartzea erabakitzen da.


III.- UDAL INSTALAZIO ELEKTRIKOEN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Lazkaoko Udalarenak diren instalazio elektrikoek mantentze eta artapen zerbitzuen kontrataziorako osatutako espedientea ikusi ondoren, eta Hirigintza, Ingurumena, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak kontratazio espedientearen aurrean egindako kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarraren onarpenera aurkezten da bere onarpenerako.

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, zera erabaki du:

- 1.- Jardunbide ireki bidez kontratazeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta urteko hirurogeita zortzi mila bederatziehun eta hirurogeita hamar euroko (68.970,00 €) gastua ere.
- 2.- Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.
- 3.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

IV.- UDALETXEKO TEILATUAREN KONPONKETAREN ESLEIPENA.-



"Udaletxeko teilatua errefortzu" lanak publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko kontratazio espedientea zein egoera prozedimentaletan dagoen ikusirik.

Horretarako ondorengo enpresei eskaintzak eskatu zaizkiela kontuan izanda:

- ☐ NICRON S.L.
- ☐ EFZ EGITURAK S.L.
- ☐ LANDETA BURDIN LANAK S.A.L.
- ☐ IBARKALDE S.L.

Eskeintzak aurkezteko jarritako epearen barruan, proposamen bakarra aurkeztu da:

- ☐ IBARKALE S.L.

Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, esleipena berari egitea proposatzen duela kontuan izanda.

Kontuan izanda IBARKALE S.L.-ri behin betiko bermea jar zezan hala nola esleipena egin ahal izateko beharrezko gainantzeko dokumentazio aurkez zezan errekerimendua egin zitzaiola.

Kontuan izanda IBARKALE S.L.-k eskatutakoak egin dituela.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

Lehena.- "Udaletxeko teilatua errefortzu" lanak IBARKALE S.L.-ri esleitzea, EHUN ETA ZAZPI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA ZENTIMO BATEAN (107.443,01 €), gehi B.E.Z.ari dagokion HOGEITA BI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA HIRU ZENTIMOTan (22.563,03 €).

Bigarrena.- Esleipen honen jakinarazpena, lehiaketara aurkeztutako bakarra bera izanik, esleitzaileri egitea.

Hirugarrena.- IBARKALE S.L.-ri esleipen honen jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasitako hamabost laneguneko epean kontratua izenpetzera etor dadin errekerimendua egitea.

V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziaren proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

- Zawopi.- 2017ko abenduaren 25ean antolatutako jaiotza bizidunarengatik eta 2018ko urtarrilaren 7an astotxo eguneko kale antzerkia antolatzeagatik 4.014,90 €ko diru laguntza ematea. 2017ko abenduan 3.000 € aurreratu zitzaizela kontuan izanda, orain 1.014,90 ordainduko zaie.



- Gerriko S.L.- 2017ko abenduaren 15, 16 eta 17an Gerriko liburudendak antolatutako euskal liburu eta disko azokarengatik, bertan egindako salmenten %15aren pareko diru laguntza ematea, hau da 2.225,04 €.

VI.- LANDA LURREKO DIRU LAGUNTZAK .-

Landa lurreko zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartzen du:

- Ansoategi Elkartea.- Ansoategi Elkarteari, 2018ko astotxo egunean Enkarterrietako asto lehiaketa eta erakusketa antolatzeagatik 5.000 €ko diru laguntza ematea. 2017ko abenduan 3.000 € aurreratu zitzaizela kontuan izanda, orain 2.000 € ordainduko zaio.

VII.- ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA.-

Udal Osoko Bilkurak, 2017ko abenduaren 19an egindako batzarraldian, 2018 urterako onartutako plantilla eta lanpostuen zerrenda ikusita.

Tokiko Gobernu Batzarrak, udal honetako alkatetzaren eskuordetzaren baitan, eta honi Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen Legeak bere 21. 1. g) artikuluan xedatutakoaren arabera ematen dizkion eskuduntzak erabiliz, aho batez, honako erabakiak hartzen ditu :

Lehena.- Ondoren zehazten den plaza barneratzen duen 2018. urterako enplegu publikoaren eskaintza onartzea:

Plazaren izena: Zerbitzuetako koordinatzailea.

Plaza Kop.: 1.

Plantilla: funtzionarioena.

Eskala: Administrazio Berezia.

Subeskala: Zerbitzu Bereziak.

Mota: Ofizioetako pertsonala.

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak Orobione taberna jatetxearen kontratazioaren inguruan gaur egungo egoerari buruzko azalpenak ematen ditu. Baita ere gaur egun Orobione eraikinean kokatzen den KZ Guneari buruz eta gainontzeko zerbitzuen egoerari buruzko azalpenak.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, araztsaldeko hirurak eta hogeita bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.